EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

| JAUN/ANDRE HORI: | | EXCMO\A. SR.\A: |
|---|---|---|
| Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, 2020ko EKAINAREN 30ean 10:00etan, *Lehendakaritzako Agerraldi-aretoan* (Vitoria-Gasteiz) egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da | | De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la *Sala de Comparecencias de la Lehendakaritza*, a las 10:00 horas del día 30 DE JUNIO DE 2020, con el siguiente |
| **GAI-ZERRENDA** | | **ORDEN DEL DÍA** |
| Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu. | 1 | Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la Sesión anterior. |
| LEHENDAKARITZA | | LEHENDAKARITZA |
| Dekretu-proiektua, garapenerako lankidetzari buruzko "Ignacio Ellacuria" saria arautzen duena. | 2 | Proyecto de Decreto por el que se regula el Premio "Ignacio Ellacuría" de cooperación para el desarrollo. |
| Erabaki-proposamena, UNRWAko Espainiako Batzordea - Ekialde Hurbileko Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziari zuzeneko dirulaguntza ematea baimentzen duena, Gazako Zerrendan COVID-19ren aurkako prebentzioa babesteko | 3 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Asociación Comité Español de la UNRWA-Agencia de Naciones Unidas para los Refugiados de Palestina en Oriente Próximo, para apoyar la prevención frente a la COVID-19 en la Franja de Gaza. |
| GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA | | GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO |
| Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua. | 4 | Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma. |

| Euskara | Zk. | Castellano |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetza-hitzarmena sinatzeko baimena emateko dena, administrazio elektronikoaren esparruko oinarrizko irtenbideak elkarri ematekoa. | 5 | Propuesta de Acuerdo por la que se aprueba la suscripción de un convenio de colaboración con la Diputación Foral de Bizkaia para la prestación mutua de soluciones básicas de administración electrónica. |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta erabakien zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 6 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |
| EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA | | DESARROLLO ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS |
| Dekretu-proiektua, segurtasun industrialarena. | 7 | Proyecto de Decreto de seguridad industrial. |
| Dekretu-proiektua, zeinaren bitartez adierazten baita intsektu bektoreak eta birusak daudela, eta nahitaezko neurriak ezartzen baitira baratzeko landareei eta intsektu bektoreei eragiten dieten birosiak prebenitzeko eta horien aurka aritzeko | 8 | Proyecto de Decreto por el que se declara la existencia de diferentes insectos vectores y virus, y se establecen medidas obligatorias de prevención y lucha contra las virosis que afectan a las plantas hortícolas y a sus insectos vectores. |
| Erabaki-proposamena, Nekazaritza, Arrantza, eta Elikadura Ministerioarekin, estatistika arloan 2020. urterako lankidetza-hitzarmena sinatzeko baimena ematen duena. | 9 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con el Ministerio de Agricultura, Pesca, y Alimentación en materia de estadística, año 2020. |
| Erabaki-proposamena, Bilboko Portu Agintaritzarekin hitzarmena sinatzeko baimena ematen duena, Euskadiko logistikako plataformen sarea sustatzeko ekintzak egiteko hainbat azoketan parte hartuz. | 10 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio con la Autoridad Portuaria de Bilbao, para la realización de acciones de promoción de la red de plataformas logísticas de Euskadi, mediante la participación en diversos certámenes feriales. |
| Erabaki-proposamena, Euskal Trenbide Sareari egindako gomendioaren hirugarren aldaketa baimentzekoa, Santurtziko Antonio Alzaga kaleko 2, 4 eta 8 zenbakietako etxeetan eta lokaletan eragindako hondamen eta kalte guztiak konpontzeko. | 11 | Propuesta de Acuerdo por la que se autoriza la tercera modificación de la encomienda a Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea para la reparación de todos los desperfectos y daños ocasionados en las viviendas y locales de los números 2, 4 y 8 de la c/ Antonio Alzaga de Santurtzi. |
| Erabaki-proposamena, NekazalTurismo Landaturismo Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, ordezkatzen duen sektorearen zaintzan eta laguntzan inbertitzeko, Covid-19k eragindako osasun- eta ekonomia-krisi larriaren ondoren. | 12 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Asociación Nekazalturismo-Landaturismo Elkartea para la inversión en la preservación y apoyo el sector al que representa, tras la grave crisis sanitaria y económica provocada por el Covid-19. |

| | | |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, 2020rako oinarri teknologikoa duten eta/edo berritzaileak diren enpresa txiki eta ertainak (Gauzatu Industria Programa) sortu eta garatzeko laguntza itzulgarrien programa finantzatzeko. | 13 | Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000,00 de euros para la financiación del programa de ayudas reintegrables destinadas a impulsar la creación y desarrollo de pymes de base tecnológica y/o innovadoras, Programa Gauzatu Industria, para el año 2020. |
| ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA | | EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES |
| Erabaki-proposamena, zenbait elkarteri zuzeneko dirulaguntza emateko dena, Lehen Urratsa proiektua finantzatzeko. Proiektu hori konfinamenduan gaitutako harrera-baliabideetatik bizitoki lagunduen alternatibetara eta gizarteratzeko ibilbideetara igarotzen da, COVID-19k sortutako egoerari erantzuteko. | 14 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a diversas Asociaciones para financiar el proyecto Lehen Urratsa, de tránsito desde los recursos de acogida habilitados durante el confinamiento a alternativas de alojamiento con apoyo e itinerarios de integración social, en respuesta a la situación generada por el COVID-19. |
| Erabaki-proposamena, Novia Salcedo Fundazioari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, NSF! -rekin REACTIVATE programa egiteko, giza kapital gaztea sartzeko. | 15 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Novia Salcedo para la realización del programa REACTIVATE con NSF! para la incorporación del capital humano joven. |
| Erabaki-proposamena, Novia Salcedo Fundazioa zuzeneko dirulaguntza bat jasotzeko berme erreala eratzeko beharretik salbuesten duena, NSF!-rekin Reactivate programa egiteko, giza kapital gaztea sartzeko. | 16 | Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Fundación Novia Salcedo de la necesidad de constituir garantía real para la percepción de una subvención directa para la realización del programa Reactivate con NSF! para la incorporación del capital humano joven. |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, laneratze-enpresentzako eta enplegu-zentro berezientzako aparteko laguntzak finantzatzeko, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzearen ondorioz jarduerak etenda edo murriztuta geratu direnean. | 17 | Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000 euros en concepto de ayudas extraordinarias para las empresas de inserción y los centros especiales de empleo cuyas actividades han quedado suspendidas o reducidas a consecuencia de la declaración del estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19 |

| INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA | | MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA |
|---|---|---|
| Dekretu-proiektua, Verter Recycling 2002, S.L. merkataritza-sozietateak martxoaren 3ko 35/2020 Dekretuaren aurka jarritako aukerako berraztertze-errekurtsoa baiesten duena. Dekretu horren bidez, Zaldibarko udal-mugartean (Bizkaia) dagoen zabortegiaren inguruko hondakinen segurtasun-biltegiak premiaz egikaritzea onartzen baita. | 18 | Proyecto de Decreto por el que se estima el recurso potestativo de reposición interpuesto por la mercantil Verter Recycling 2002, S.L. contra el Decreto 35/2020, de 3 de marzo, por el que se aprueba la ejecución urgente de los depósitos de seguridad de residuos en el entorno del vertedero sito en el término municipal de Zaldibar (Bizkaia). |
| Erabaki-proposamena, Beizamako Udalarekin lankidetza-hitzarmen bat sinatzeko baimena emateko dena, babes sozialeko etxebizitzen sustapenerako. | 19 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Beizama para promoción de vivienda de protección social. |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Azpeitiko Esklabuen Konbentuan 48 zuzkidura-bizitokiak eraikitzeko obren aurrekontu-estaldurarako. | 20 | Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000,00 de euros para la cobertura presupuestaría de las obras de construcción de 48 alojamientos dotacionales en el Convento de las Esclavas de Azpeitia (Gipuzkoa). |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa Gasteizko Lakuabizkarrako Orreaga kaleko 5. zenbakian 92 zuzkidura-bizitoki eraikitzeko obren aurrekontu-estaldurarako. | 21 | Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000,00 de euros para la cobertura presupuestaría de las obras de construcción 92 alojamientos dotacionales en la calle Roncesvalles 5 de Lakuabizkarra en Vitoria-Gasteiz. |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000,00 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Arangoitiako (Bilbao) UE 130.02 P2 partzelan 55 etxebizitza sozialak eraikitzeko obren aurrekontu-estaldurarako. | 22 | Propuesta de Acuerdo de autorización de gasto superior a 5.000.000,00 de euros para la cobertura presupuestaría de las obras de construcción de 55 viviendas sociales y anejos en la parcela P2 de la UE 130.02 de Arangoiti en Bilbao (Bizkaia). |
| OGASUN ETA EKONOMIA SAILA | | HACIENDA Y ECONOMÍA |
| Erabaki-proposamena, "Uraren Euskal Agentzia" zuzenbide pribatuko erakunde publikoarentzat 3.500.000 euroko funtsen soberakinak deklaratzeari buruzkoa. | 23 | Propuesta de Acuerdo sobre declaración de excedentes de fondos destinados al Ente Público de derecho privado "Agencia Vasca del Agua - Uraren Euskal Agentzia" por importe de 3.500.000 euros. |
| Erabaki-proposamena, "IHOBE, S.A." sozietate publikorako 875.000 euroko funtsen soberakinak deklaratzeari buruzkoa. | 24 | Propuesta de Acuerdo sobre declaración de excedentes de fondos destinados a la sociedad pública "IHOBE, S.A." por importe de 875.000 euros. |

OSASUN SAILA

SALUD

Erabaki-proposamena, Osakidetza -Euskal Osasun Zerbitzua erakunde publikoak izan ditzakeen langile-kopuru estrukturalen gehieneko mugak aldatzen dituena, lanbide-taldeen arabera.

25 Propuesta de Acuerdo por el que se modifican los límites máximos de efectivos estructurales de personal, según grupos profesionales, con que puede contar el ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Erabaki-proposamena, Bioaraba Osasun Ikerketa Institutua Elkarteari, Biocruces Bizkaia Osasun Ikerketa Institutua Elkarteari eta Biodonostia Institutua Elkarteari zuzeneko dirulaguntza emateko dena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskadi 2020 Plana eta Espezializazio Adimenduaren RIS3 Euskadi Estrategia, baita osasunean ikerketa eta berrikuntza estrategia 2020 ere garapen-proiektuak finantzatzeko.

26 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Asociación Instituto de Investigación Sanitaria Bioaraba, a la Asociación Instituto de Investigación Sanitaria Biocruces Bizkaia y a la Asociación Instituto Biodonostia, para financiar proyectos de despliegue del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2020 y de la Estrategia de especialización inteligente RIS3 Euskadi, así como de la Estrategia de investigación e innovación en salud 2020.

Erabaki-proposamena, COVID-19k eragindako pandemia-egoerari aurre egiteko larrialdi-kontratuen berri hartzekoa.

27 Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de contratos de emergencia para hacer frente a la situación de pandemia provocada por el COVID 19.

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erabaki-proposamena, Asociación DO, RE, NI, para la estimulación del cerebro entitateari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, "Hirugarren adinekoen Gipuzkoako gizartean "do re ni" musikoterapia metodoaren baliozkotasun eta garrantziaren frogapen zientifikoa" proiektua garatzeko 2020. urtean.

28 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la entidad Asociación DO, RE, NI, para la estimulación del cerebro, para financiar el desarrollo del proyecto "Demostración científica de la validez e importancia del método de musicoterapia "do re ni" en la sociedad gipuzkoana de la tercera edad", en el año 2020.

Erabaki-proposamena, Tecnalia Research and Innovation Fundazioari dirulaguntza zuzena emateko dena, Kultura eta Sormen Industrien (KSI) zeharkako berrikuntza teknologia sustatzeko 2020. urtean, baita hori gauzatzen duen hitzarmena jakinaraztekoa ere.

29 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Tecnalia Research & Innovation para el fomento de la innovación tecnológica transversal de las industrias culturales y creativas (ICC), en el año 2020, así como de comunicación del convenio a través del que se instrumentaliza la misma.

| Euskara | Nº | Castellano |
|---|---|---|
| Erabaki-proposamena, Vicomtech Fundazioari (Centro de Tecnologías de la Interacción Visual y Comunicaciones) dirulaguntza zuzena emateko dena, Kultura eta Sormen Industrien (KSI) hizkuntzen eta komunikazioaren industrien berrikuntza teknologikoa sustatzeko 2020. urtean, baita hori gauzatzen duen hitzarmena jakinaraztekoa ere. | 30 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Fundación Vicomtech (Centro de Tecnologías de Interacción Visual y Comunicaciones) para el fomento de la innovación tecnológica de las industrias de la lengua y la comunicación de las industrias culturales y creativas (ICC), en el año 2020, así como de comunicación del convenio a través del que se instrumentaliza la misma. |
| Erabaki-proposamena, Elebide, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren 2019ko memoria jakinarazteko dena. | 31 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento de la memoria 2019 de Elebide, Servicio para la Garantía de los Derechos Lingüísticos. |
| SEGURTASUN SAILA | | SEGURIDAD |
| Legegintzako Dekretu proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen Testu Bategina onartzen duena. | 32 | Proyecto de Decreto Legislativo por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco. |
| Dekretu-proiektua, COVID-19ren inpaktuari aurre egiteko jokoaren sektoreko presako neurriei buruzkoa. | 33 | Proyecto de Decreto de medidas urgentes en el sector del juego para hacer frente al impacto del COVID-19. |
| Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeko lehendakaria eta kideak izendatzen dituen Dekretua hirugarrenez aldatzen duena. | 34 | Proyecto de Decreto de tercera modificación del Decreto por el que se efectúa el nombramiento de la presidencia y de las vocalías de la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| Erabaki-proposamena, zeinaren bidez dirulaguntza bat ematen baitzaie Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoei, 2020ko apirilaren 6tik 2020ko uztailaren 12ra bitarteko aldiari dagozkion ohiko funtzionamenduko gastuei aurre egiteko. | 35 | Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención a los partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco para atender sus gastos de funcionamiento ordinario correspondientes al periodo comprendido entre el 6 de abril de 2020 y el 12 de julio de 2020. |
| IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK | | NOMBRAMIENTOS Y CESES |
| LEGEBILTZAR-EKIMENAK | | INICIATIVAS PARLAMENTARIAS |

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 26a.

En Vitoria-Gasteiz, 26 de junio de 2020.

IZP./FDO.: ERKOREKA GERVASIO, JOSU IÑAKI.
EUSKO JAURLARITZAREN IDAZKARIA
SECRETARIO DE GOBIERNO